

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Prozedura honetan interesdun izan litezkeenei dei egitea: 76/2020 prozeduran, Aranzazu Izarra Azumendi andreak jarri duena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegian bideratu dena

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, honako hau jakitera ematen da:

– Aranzazu Izarra Azumendi andreak urtarrilaren 8ko 2/2020 Foru Aginduaren aurka 76/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtso laburtua jarri eta berorren espedientea Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3 zenbakiko Epaitegira bidali egin dela. Agindu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio orokorreko 2018ko Enplegu Publikoko eskaintzan Administrazio Orokorreko eskalako, Administrazioen azpieskalan funtzionario gisa sartzeko deialdian oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratzea onartu zuen epaimahai kalifikatzailearen erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezetsi zen. (Expte.243/2018(8259)).

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetara bertaratu eta parte har dezan. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 10a

Funtzio Publikoko zuzendaria
ADOLFO LANDER VERA